

BARAÑAINGO LAGUNAK UDAL ZERBITZUAREN ESTATUTUAK

176. aldizkaria - 2016ko irailaren 12a

I. TITULUA

ARAU OROKORRAK

I. KAPITULUA

XEDEA, IZAERA ETA IZENA

1. artikulua. Erregelamendu honen xedea da Barañaingo “Lagunak” Udal Zerbitzua erakunde autonomoaren araubide organikoa, funtzionala, administratiboa, langileena, ondarearena eta finantziarioa arautzea.
2. artikulua. Zerbitzu publikoa deszentralizazioko araubidean emanen da, erakunde autonomoaren bidez. Lagunak Udal Zerbitzua erakunde autonomoak, haren xedeak eta eginkizunak betetzeko, nortasun juridiko propioa, autonomia eta arlo-ondarea izanen ditu.
3. artikulua. Erakunde autonomoaren izena da “Barañaingo “Lagunak” Udal Zerbitzua”.

II. KAPITULUA

HELBURUA, EGINKIZUNAK, ERREGULAZIOA ETA AHALMENAK.

4. artikulua. Zerbitzuaren helburua pertsonaren prestakuntza oso eta armonikoa da, haren kultura eta hezibidea zaindu, sustatu eta garatzea, kirol eta josteta jardueretan eta, oro har, aisiakoetan. Helburu horiek lortzeko burutzen dira kirol jarduerak, jostetakoak edo kultur arlokoak, bata bestearekin koordinaturik baina bereiz diharduten sailetan, betiere baztertuz jarduera profesionalak.
5. artikulua. Erakunde Autonomoaren eginkizun espezifikoak dira, besterik ere izan daitekeelarik eta bestelakorik ukatu gabe, honakoen kudeaketa deszentralizatua:

–Kirol esparruan:

- a) Kirola sustatzea eta gorputz hezkuntza garatzea udalerriko biztanleen artean, aukera berdintasunarekin, bertan sarturik kirol espezialitateetatik ahalik eta gehien, instalazioen barnean zein kanpoan egin daitezkeenak. Halaber, kirol sailak, herri izaerakoak, sortzea eta erabiltzea.
- b) Mota guztietako kirol instalazioak sustatzea eta egun Udalak dituenak zaindu, konpondu, mantendu eta administratzea.
- c) Kirol lehiaketak sustatu, programatu eta antolatzea, gaiaren gaineko berriarazko arautegiari jarraikiz.

d) Irabazi asmorik gabe bultzatzea Udalaren kirol instalazioen erabileran lehentasunak izan dezan heziketa eta josteta izaerak, haien helburuari dagokionak.

e) Kirol klubak sortzea, edo bestelako enteak, gaiaren gaineko berariazko legedian, edo, kasua bada, kirol eskolen gainekoan, agertzen direnak, eta zuzendaritza batzordeak onetsi beharko dituenak.

f) Zerbitzuaren barne funtzionamendua arautzea. Horretarako egokiak diren barne araubideko erregelamenduak onetsiko dira.

g) Kirol jarduera bidezkoa sustatzea, generoak baldintzarik edo aurrejuzkurik ezarri gabe.

–Kultura eta josteta esparruan:

a) Josteta eta aisialdirako ikuskizunak egitea, kirol arlokoak. Horretarako behar diren kontratazioak eginen dira, estatutu hauen 16. artikuluan ezartzen diren mugekin.

b) Kirol jaiak antolatzea, Zerbitzuaren instalazioetan egiteko modukoak badira.

c) Solasaldiak, mintzaldiak, topaketak edo eztabaidak sustatu eta garatzea, informazio edo prestakuntzarako, kirolaren eta aisiaren kulturarekin lotutako edozein gairi buruzkoak. Horretarako egoki juzgatzen diren kontratazioak eta aginduak eginen dira.

6. artikulua. Erakunde autonomoa erregelamendu honetan diren xedapenek arautuko dute, ezertan ukatu gabe aplikatzen ahal diren goragoko xedapenetan eta legeetan daudenak.

Estatutu hauek garatu eta beteko dira haien organoek hartzen dituzten baliozko erabakien bidez, beren eskumeneko esparruaren barrenean.

Estatutu hauek garatzeko, kasua bada, onesten diren barne araubideko erregelamenduek ezin izanen diete estatutuei aurka egin.

7. artikulua. Erakunde autonomoak eskumena izanen du bere helburuak betetzeko egintza guztiak egiteko. Subiranotasun osoa izanen du egintzak eta jarduerak burutzeko, dagokion finantziario araubidearen bidez egin daitezkeenak, betiere Udalak, osoko bilkuran, onetsi dituen aurrekontuen mugak ukitu edo aldatu gabe.

Bereziki, eskumena izanen du honetarako:

a) Diru-laguntzak, sorospenak eta laguntzak eskatzea edozein instituzio, korporazio edo entitate publiko edo pribaturi, estatu, erkidego edo toki mailakoa izan.

b) Hitzarmenak eta kontratuak sinatzea, edozein izaera eta motatakoak, haren eskumenean esparruan. Kreditua, maileguak edo aurrerakinak kontratatzeke, eta oro har udal ondasunendako ukipen edo arrisku berezia dakarten negozio juridikoetarako, Udalaren baimen espresu eta berariazkoa beharko da. Adierazi behar da kontratazioen araubidea dela Nafarroako administrazio publikoaren kontratuei buruzko legeria formalean ezarritakoa.

c) Erakundearen jarduera guztiak era egokian egiteko behar diren langileak kontratatzea. Horien araubidea Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileria arautzen duen foru legerian ezarritakoa da.

d) Bere eskumenero zerbitzu guztiak antolatzea.

e) Obrak, erosketak, instalazioak eta zerbitzuak esleitzea, haiek egin edo eman, mantendu, zaindu eta hobetzeko, betiere 300.000 eurotik gorakoak ez badira. Bestela, Osoko Bilkurak baimena eman beharko du aldez aurretik. Kontratazio horien araubidea Nafarroako administrazio publikoen kontratuak arautzen dituen foru legerian ezarritakoa da.

f) Mota guztietako material, tresna, lanabes eta ondasunak eskuratzea, jardueren eta instalazioen eguneroko erabilera eta funtzionamendurako behar direnak, eta haiek besterentzea edo eskualdatzea, soberako, botatzeko edo baliorik gabeko sailkapena ematen zaienean, betiere eskuratzeko edo besterentzeko 300.000 eurotik gora egiten ez badute. Bestela, Osoko Bilkurak baimena eman beharko du aldez aurretik.

g) Inbertsioak egitea, higiezin eta instalazioetarako dituen aurrekontuek horretarako bidea ematen badute eta betiere 300.000 eurotik gora egiten ez badute. Bestela, Osoko Bilkurak baimena eman beharko du aldez aurretik. Edonola ere, Udalaren eskumeneroak izanen dira haien mantentze lan bereziari dagozkionak.

h) Urtero ezartzea Zerbitzuaren erabiltzaileek, hura mantentzeko, ordaindu beharreko tarifak. Prezio publikoaren izaera izanen dute eta haiek ezarri eta arautzeko toki ogasunei buruzko foru legedian xedatutakoari jarraikiko zaio.

Tarifak ezartzerakoan, kontuan hartzen ahal dira, erabiltzaileen adina eta erabiltzeko araubidea ez ezik, ahalmen ekonomiko txikiagoa edukitzea edo era guztietako inguruabarrak, babes berezia jasotzeko aukera ematen dutenak.

III. KAPITULUA

ERAKUNDEAREN HELBIDEA ETA LURRALDE ESPARRUA

8. artikulua. Erakunde Autonomoaren helbidea izanen da Barañaingo erronda, zk.g. eta Zuzendaritza Batzordearen erabaki soilaren bidez aldatzen ahal da, betiere Barañaingo udal mugapearen barnean, kideen bi herenek harturik eta Udalari horren berri emanda.

9. artikulua. Erakundearen lurralde esparrua Barañaingo udalerria da.

II. TITULUA

ARAU BIDE ORGANIKOA ETA FUNTZIONALA

I. KAPITULUA

ZUZENDARITZA ORGANOAK ETA ADMINISTRATZEKO MODUA

10. artikulua. Erakundearen gobernua eta administrazioa Zuzendaritza Batzordea izeneko kide anitzeko organoaren esku egonen dira. Osoko bilkuraren araubidea izanen du, edo bestela batzordearena. Halaber, abonatuena biltzar orokorra egonen da. Organo bakoitzak izanen ditu erregelamendu honetan aitortzen zaizkion eskumen eta ahalmenak.

II. KAPITULUA

LEHENDAKARITZA, IZENDAPENA ETA ESKURANTZAK

11. artikulua. Lehendakariak, zuzendaritza batzordeko kide kualifikatuena baita, Zuzendaritza Batzordeak eta biltzar orokorrak hartutako erabakiak betetzeko ardura izanen du. Halaber, haien legezko ordezkaria izanen da egintza guztietan eta mota guztietako jarduketak burutzeko, edozein pertsona fisiko edo juridiko, pribatu edo publiko, erakunde, korporazio edo administrazioerikiko, edozein izaera eta mailakoak izanda, hala Erakundearen eguneroko jardunari dagokionean nola parte hartzen duenean egintza berezietan edo are auzietan ere, Erakundearen interesak sustatu edo defendatzeko burutzen badira, maila, mota, jurisdikzio eta auzialdi guztietako epaitegi eta auzitegietan.

Lehendakariaren kargua Udaleko alkateari dagokio, edo zinegotzi bati, alkateak proposatu eta Udalak, osoko bilkuran, izendatzen duenari, zuzendaritza batzorderako proposatzen diren udal taldeen ordezkarien artean. Edozein inguruabar dela eta, alkatetza berritzen bada, lehendakaria ere aldatu beharko da. Izendapena atal honetan aurreikusitakoari lotuko zaio eta ukatu gabe, kasua bada, zinegotzi bera berriro hautatzea, dagokion kargualdia bukatu arte.

12. artikulua. Ondokoak dira lehendakariaren berariazko eskurantzak:

a) Zuzendaritza Batzordeko, osoko bilkuran edo batzordean, eta Batzar Orokorreko bilkuretarako deia egitea eta haietan buru izatea; eztabaidak zuzentzea, bilkurei bukaera ematea eta berdinketetan berak duen kalitatezko botoa erabiliz erabakitzea.

b) Instalazioetan aritzen diren langile guztien dedikazioa eta lana ikuskatzea, baita instalazioen funtzionamendu egokia ere, izan Lagunak-ek berak zuzenean kontratatutakoak, izan instalazioen barnean lana egiten duen beste enpresa batek kontratatutakoak.

c) Abonatuak egindako erreklamazioez arduratzea eta Zuzendaritza Batzordeari igortzea, ebats ditzan.

d) Hark berak hartzea, erantzukizuna berea izanik, besteen eskumenekoak diren erabakiak, premia larriko kasuetan eta arrisku handia dagoenean pertsona eta ondasun publikoarendako. Horren berri emanen dio berehala Zuzendaritza Batzordeari, berretsi edo berritzeko, eta Udalbatzari, helburu berarekin, kasuaren larritasunak hala eskatzen badu.

e) Zuzendaritza Batzordearen egitekoak bultzatu eta zuzentzea.

f) Erakundearen langileen eta kargu garrantzitsuenen izendapenak eta haren organo eskudunek aurkezten dituzten kontuak ikus-onestea.

g) Baimena ematea, Zuzendaritza Batzordeko beste kide batekin batera sinatuz, Erakundearen banku-gordailu eta kontuetako fondoak atera eta erabiltzeko.

h) Estatutu hauen 15. artikuluan aurreikusten den hauteskunde prozesua irekita deklaratzeko.

13. artikulua. Lehendakariaren kargua hutsik badago, edo hura kanpoan edo eri denean, edo larrialdiaren kasuan, eta ukatu gabe izendatua aurretik azaldu den moduan berritzea, kasua bada, hura ordezkatzeko du, dagozkion eskurantzak guztiak harturik, lehendakariordeak, eta hura ere ez badago, idazkariak eta diruzainak, ordena horretan.

III. KAPITULUA

ZUZENDARITZA BATZORDEA, IZENDAPENA ETA ESKURANTZAK

14. artikulua. Erakunde autonomoaren goi mailako kudeaketa eta gobernuak geratzen da Zuzendaritza Batzordearen esku. Honako kide hauek ditu:

–Udaleko alkate udalburua, edo Estatutu hauen 11. artikuluaaren arabera lehendakariordeak izendatutako zinegotzia.

–Zinegotzi bat udal talde bakoitzeko eta ordezkoko zinegotzia. Udalak osoko bilkuran izendaturik, bakoitzaren udal taldeak proposatuta. Ordezkoa arituko da kargua hutsik badago, edo titularrak kanpoan edo eri badago, edo titularrak eskuordetu ondoren, edo ordezkoko egoera frogatzen bada.

–Abonatuaren zazpi ordezkari, Erregelamendu honetan ezartzen den moduan aukeratuak.

Zuzendaritza Batzordeak bere kideen artean izendatuko ditu lehendakariordeak, idazkaria eta diruzaina.

15. artikulua. Zuzendaritza Batzordeko kideen izendapena.

Udalaren ordezkariak hautatuko dira haien hauteskunde agintaldiak irautean duen denborarako. Hura amaitzean, jarduneko egoeran geratuko dira Udal berriak, osoko bilkuran, kide berriak izendatu arte. Haien ordezkoko hautatu zirenean erabili zen modu berari jarraikiko zaio.

Abonatuak lau urteko aldietarako hautatuko dira eta berriro ere aurkezten ahal izanen dira.

Abonatu iraunkorren ordezkariak botoa emateko eskubidea dutenek hautatuko dituzte, hautatuak izateko eskubidea dutenen artean, bozketak unibertsal, libre, berdina, zuzenean eta sekretuaren bidez, alde aurretik hautetsien aldarrikapena eginda, hamar egun balioduneko epean, Barañaingo Lagunak Udala Zerbitzuko lehendakariak hauteskunde prozesua irekitzat jotzen duenetik.

Zuzendaritza Batzordean erabiltzaileei dagozkien kideak ondoko prozedurari jarraikiz izendatuko dira:

Bozketak egin aurretik Zuzendaritza Batzordeak hauteskunde mahaia edo kide anitzeko organoa, haren ordezkari dena, izendatuko du. Horrek zehaztuko du erabiltzaileen ordezkariak Batzordean nahitaez bete beharreko karguen kopurua, hauteskundeak era zuzenean egin daitezela begiratuko du, botoa eman nahi dutenek horretarako eskubidea ote duten egiaztatuko du, botoen kontaketa egingen du, aurkeztu diren hautagaitzetako kontu-hartzaileek gainbegiratu eta Zuzendaritza Batzordeari proposatuko dio aurkeztu diren erreklamazioak ebazteko.

Hautagaitzak aurkeztuko dira zerrenda irekian, ordena alfabetikoaren arabera prestatua. Hautetsitzat aldarrikatuko dira boturik gehien eskuratu dutenak. Haien artean berdinketarik gertatuz gero, Udal Zerbitzuan antzintasun handiena duena lehenetsiko da.

Botoa emateko eskubidea duen abonatu bakoitzak hautatzen ahal duen hautagai kopurua da, gehienez ere, Zuzendaritza Batzordean egon behar duten kide-erabiltzaileen hiru laurdenen (3/4) parekoa.

Ez bada inolako hautagaitzarik aurkeztzen, erabiltzaileen ordezkariak izendatzeko zozketa egingen da, botoa emateko eskubidea dutenen artean. Halakoetan nahitaezkoa da karguak betetzea.

Gaixotasuna, heriotza, bizilekuz aldatzea edo gainerako edozein egoera berezirengatik kargu hutsak geratzen badira, hauteskundeak egin gabe beteko dituzte, hurrenez hurren, hautatuen ondoren boturik gehien atera dutenek, edo aldeztu aurretik aipatu zozketa eginez.

16. artikulua. Zuzendaritza Batzordearen ahalmenak, dituen eginkizunekin bat, ondokoak dira:

a) Jarduketa programak onestea: aurrekontuak, plantilla organikoa, prezio publikoak, aurrekontua betearazteko oinarriak eta aurrekontuetako helburuak eta aurrekontuari erantsitako agiriak, Lagunak Udal Zerbitzuak geroago Udalari igortzen dizkionak, udal aurrekontuari eta plantilla organikoari gehitzeko.

b) Proposamena prestatzea, ondoren Batzar Orokorra onetsi dezan, ekitaldi ekonomiko bakoitzean egindako jardueren ondoriozko balantzeen eta kudeaketa eta jardura txostenaren gainera. Batzarra aurrekontuetan ezarri eta Udalak osoko bilkuran onetsitako zenbatekoei lotuko zaie.

c) Urte bakoitzeko ekitaldi ekonomikorako proiektatu diren jardura guztiei dagozkien aurrekontuak onestea, gero Udalak berretsi beharko baditu ere.

d) Proposamena prestatzea, ondoren Batzar orokorra onetsi dezan, Zuzendaritza Batzordeak eztabaidatutako edozein gairen gainera, betiere Batzordeko kideen botoetatik ehuneko hogeita bosteko (%25) botoen adostasuna badu.

e) Antolatu, zuzendu, ikuskatu eta neurri egokiak hartzea, erakundearen eta haren instalazioen antolaketa eta funtzionamendua hobetzeko xedearekin; halaber, jardura eta zerbitzuen antolaketa eta funtzionamendurako arauak proposatzea.

f) Era guztietako egintza eta kontratuak burutzea, bere jarduketa esparruan, instalazioen antolaketa eta funtzionamendurako. Instalazioen mantentze lan, laguntza eta sostengu materialaz arduratuko da, era orokorrean, betiere egintza eta kontratu horiek 300.000 eurotik gora egiten ez badute. Bestela, Udalak, osoko bilkuran, baimena eman beharko du aldeztu aurretik.

g) Kirol instalazioak, edo bestelakoak, Udalak edo beste erakundeek antolatzen dituzten jarduerak garatzeko egokiak direnak, erabiltzeko hitzarmenak onestea, betiere Udalak, osoko bilkuran, onetsitako aurrekontuen mugak desorekatu gabe.

h) Mota guztietako kontu korranteak eta aurrezki kontuak ireki, haien jarraipena egin, xedatu eta deuseztatzea, xede hori duen edozein establezimendutan. Halaber, haietan mota guztietako deposituak eratzea eta kentzea, dirutan edo baloretan. Eragiketak horretarako baimena dutenek egingen dituzte, Batzar Orokorrak onetsitako muga ekonomikoen barnean.

i) Barne araubideko araudiak onestea, Zuzendaritza Batzordeak aldeztu aurretik prestatuak.

j) Mota guztietako erreklamazio, eskaera eta errekurso -ohikoak eta ohiz kanpokoak- paratzea eta/edo haietan agertzea, kasua bada, epaitegietako edo justizia epaimahaietako edozein instantzian eta Espainiako lurralde eremuko edozein jurisdikzioetakoetan; halaber, egoki den gobernu eta administrazio agintari orori zuzendurik, emandako epaia onartuz edo hari apelazioa aurkeztuta, Erakundearen xede eta helburuen interesen aldekoa zein den.

k) Zerbitzuko langileak, finkoak zein behin-behinekoak, izendatzea, lanpostutik kentzea eta kontratatzea, betiere Nafarroako administrazio publikoaren zerbitzuko langileen gaineko foru araudian ezarritako xedapenei eta Zerbitzuko plantilla organikorako onetsitako mugei lotuta.

l) Era guztietako kobrantzak eta ordainketak egitea, dagokion aurrekontuan ezarritako mugen barnean. Aurrekontuaren araubidea, ekonomia eta finantza arlokoa, kontabilitatearena, kontu-hartzailearena, finantza kontrolarena eta eraginkortasunari dagokiena Toki Ogasunei buruzko Foru Legean ezarritakoaren arabera egokitu beharko dira.

m) Erabiltzaileek ordaindu beharreko prezio publikoak proposatzea, eta ezartzea, kasua bada, kategoriak eta ekarpen ezberdinak, iraunkortasuna, araubidea edo bestelako baldintzen arabera; orobat, haiek eguneratzea, betiere eta araubide guztietan eta bestelako justifikaziorik ezean, bizitzaren kostuaren benetako igoerei lotuta eta betiere Toki Ogasunei buruzko Foru Legean ezarritakoari.

n) Hauteskunde egutegiak ezartzea, hauteskunde prozesurako tramite guztiak zuzen betetzeko aski diren epeak adierazita. Era berean, erabiltzaileen ordezkarien hautagaitzak zehaztuko ditu, Estatutu hauen 15. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz.

ñ) Aurretik arautu den hauteskunde prozesutik datozen erreklamazioak ebaztea.

o) Abonatuak onartu, zehatu, kendu eta bidaltzea, estatutu hauetan eta haiek garatzen dituzten barne araudietan xedatutakoari jarraikiz.

p) Erakundearen Batzar Orokorrarako deia egitea eta haien buru izatea.

q) Batzar Orokorrak eskualdatzen dizkionak.

17. artikulua. Zuzendaritza Batzordeak osoko bilkura edo batzorde iraunkor gisa jardunen du. Batzorde iraunkorra ondokoek osatuko dute:

–Lehendakaria, Zuzendaritza Batzordeko lehendakaria ere izanen dena.

–Bi zinegotzi batzordekide, Zuzendaritza Batzordea osatzen dutenek beraien artetik hautatuak.

–Hiru abonatu batzordekide iraunko, zuzendaritza batzordea osatzen dutenek beraien artetik hautatuak.

Batzorde Iraunkorreko kideek karguak bozketa eginez banatuko dituzte. Lehendakariordea abonatuaren ordezkari bat izanen da; idazkariaren eta diruzainaren karguak Zuzendaritza Batzordeko osoko bilkuretan kargu horiek dituztenek beteko dituzte, bestela haien izendapena egingen da.

Batzorde Iraunkorrean idazkaria eta diruzaina berriro izendatzen badira, kargu horiek hautatzeko erabakiari Zuzendaritza Batzordeko kideen gehiengo osoak aldeko botoa eman beharko dio.

18. artikulua. Batzorde Iraunkorrari ondokoa dagokio:

a) Zuzendaritza Batzordeak, osoko bilkuran, instalazioetarako arautzen dituen zerbitzuak eta jarduerak antolatu, programatu eta zuzentzea.

b) Instalazio eta zerbitzuen mantentze lan, laguntza eta sostengu materialaz arduratzea.

c) Langileen plantillak prestatzea, Zuzendaritza Batzordeak, osoko bilkuran, aztertu eta onets ditzan eta ondoren Udalari igortzeko, osoko bilkuran onets ditzan.

d) Zerbitzuen araudiak prestatzea, Batzar Orokorrak onets ditzan.

e) Zuzendaritza batzordeak eskuordetzen dizkion gainerako guztiak.

IV. KAPITULUA

BATZAR OROKORRA, HAREN ARAUBIDEA ETA ESKURANTZAK

19. artikulua. Batzar Orokorra osatuko dute instalazioetako abonatu guztiek, adinez nagusi izan eta jarduteko ahalmen osoa badute. Botoa emateko eskubidea izanen dute, ezarritako prezioen ordainketa eguneratua badute.

Zuzendaritza Batzordea ere Batzarreko kide izanen da. Botoa emateko eskubidea izanen du eta batzarreko lehendakaria izanen da.

Batzar Orokorrak ondoko eskurantzak ditu:

a) Proposamenak egitea erabiltzaileek ordaindu beharreko prezio publikoei buruz eta urtero eguneratzea, eta ezartzea, kasua bada, kategoriak eta ekarpen ezberdinak, iraunkortasuna, instalazioen betekizuna eta erabiltzeko araubidea edo bestelako baldintzen arabera, jarduteko printzipioak izanik autofinantzaketa eta mantentzea hasiera batean ezarritako prezioen proportzionaltasuna –bestelako justifikaziorik ezean– bizitzaren kostuaren igoeren urteko neurrian.

b) Estatutuetan egin litezkeen aldaketetan parte hartzea, baina arauketan Zerbitzuaren udal izaera murriztu gabe.

c) Jakitea zein diren urte bakoitzerako prestatutako aurrekontuak, Zuzendaritza Batzordeak aurkeztu ondoren, baita zein diren aurreko ekitaldiko emaitzak eta Zuzendaritza Batzordeak proposatzen duen beste edozein gai ere.

V. KAPITULUA

ZERBITZUKO ORGANOETAKO GAINERAKO KIDEAK

20. artikulua. Bai zerbitzuko Zuzendaritza Batzordeak, bai Batzorde Iraunkorrak, bai erakunde autonomoraren Batzar Orokorrak ere, idazkari baten laguntza izanen dute. Hasiera batean, haien kideen artetik izendatuko da; bilkuretan parte hartuko du, hizpidez eta botoz, eta esleitzen zaizkion langileak izanen ditu. Haren eginkizuna izanen da, betiere, aipatu langileen lanak gainbegiratzea, ondoko hauek:

a) Erabiltzaile abonatuaren erregistro liburuaren eramatea, bertan jasoz haien izen-deiturak, helbidea, Erakundearen duten kargua eta sarrera eta irteera datak.

b) Akta liburu bana edukitzea, organo bakoitzeko. Haietan jasoko dira hartutako ebazpenak, eta bakoitzari buruz zehaztutako agertutako pertsonak, nolako botoak eman dituzten eta guzti-guztietan datak, deialdiarena eta egiten den bilerarena edo hartzen den erabakiarena. Halaber, haiek izenpetzeko sinadura paratuko du, delako bileran buru egin duenarekin batera.

c) Erregistro eta akta liburuak zaintzea, hartutako erabakiak jakinaraztea, hartzailea orokorra ez denean edo haren gainean duen organoak agintzen dionean, lehendakariaren ikus-onespenarekin.

d) Zitazioak egitea, zerbitzua ematen ari den organoen bilkuretarako, postaz arduratzea eta behar diren iragarkiak prestatzea.

e) Erakundearen jardueren, gertakizunen eta kudeaketa administratiboaren gaineko txostenak prestatzen laguntzea.

f) Erabiltzaile abonatuaren onarpenaren eta irteeraren berri ematea diruzainari, gertatu diren data adierazita.

g) Langileen lansarien nomina hilabetero prestatzea eta baimentzea, diruzainaren ikus-onespenarekin eta lehendakariaren ordain-agiriarekin, diruzainak ordainketak egin ditzan.

Batzar Orokorrak eta Zuzendaritza Batzordeak, zein bere eskumeneren esparruan, kudeatzaileari esleitzen ahal dizkiote idazkaritzaren egitekoak.

21. artikulua. Halaber, diruzain bat izanen da. Hasiera batean, kideen artetik izendatuko da; bilkuretan parte hartuko du, hizpidez eta botoz, eta esleitzen zaizkion langileak izanen ditu. Haren eginkizuna izanen da, betiere, aipatu langileen lanak gainbegiratzea, ondoko hauek:

a) Erakundearen kontabilitatea. Liburuetan, kontusail biko sistemaren bidez, zehatz-mehatz jasoko dira dirusarrera eta gastu guztiak.

b) Zerbitzuaren prezio publikoen diru-bilketa.

c) Zuzendaritza batzordeak erabakitzen dituen edozein motatako ordainketei erantzutea, ordainagiri, abonamendu, ordain-agindu, txeke edo taloiak sinatuz, lehendakariak eta baimendutako kideetako batek ikus-onetsi ondoren.

d) Inbentarioa, balantzeak, emaitzen kontuak eta eskatzen zaizkion gainerakoak prestatzea. Dagokion ekitaldiaren ondoko urteko lehen hiruhilekoan igorriko dizkio zuzendaritza batzordeari.

e) Diru-sarreraren eta gastuen urteko aurrekontuaren proiektua prestatzea, Zuzendaritza Batzordearekin batera.

Zuzendaritza Batzordea dirusarreraren eta gastuen betekizun arruntak esleitzen ahal dizkio kudeatzaileari, eta ahalmenak eman faktura edo eskaera txikiak, kirol instalazioetan presako kasuetan sortuak, ordaintzeko, edo dirua erabiltzeko, ezartzen zaizkion mugekin. Halakoetan, diruzainak xede horretarako behar direnak emanen ditu, eta biek kontuak aurkeztuko dituzte, baimentzeko erabakian ezartzen zaizkien tenorean eta moduan.

Kargu honi aurreko aginduan arautzen diren aurreikuspenak ere aplikatuko zaizkio, pertsona batengan eginkizunak batzeari eta haiei laguntza emateko langileak egoteari buruzkoak.

VI. KAPITULUA

ERAKUNDEAREN INSTALAZIOEKIN ETA SAILEKIN LOTUTAKO KARGUAK

22. artikulua. Jardueren eta zerbitzuen funtzionamendua hobetzeko, zuzendaritza batzordeak edo erregelamendu honetan arautzen diren gainerako organoek gaiaren gainean dituzten goi mailako eskumenak murriztu gabe, ondoko hauek izendatuko dira:

–Lokal eta Instalazioetako bi (2) delegatu.

–Kultur eta Josteta Saileko bi (2) delegatu.

–Kirol Saileko bi (2) delegatu.

Zuzendaritza Batzordeko kideen artetik izendatuko dira.

Haien eginkizuna izanen da Zuzendaritza Batzordearen eta abonatuaren arteko lotura zuzenagoa eta hurbilagoa egoteko organoa izatea, abonatuari Erakundearen informazio printzipioak eta zuzendaritza arauak helarazteko, eta Batzordeari eta erakundeari, berriz, abonatuaren gogoetak, iradokizunak eta erreklamazioak.

Organo aholku-emaileak dira. Erabakitzeke ahalmena bakarrik etorriko zaie Batzar Orokorrak edo Zuzendaritza Batzordeak hartutako erabakiek espresuki ematen dietenean.

Hona haien eskurantzak nagusiak:

A) Lokaletako eta instalazioetako delegatuari dagokienez:

a) Sailletako delegatuekin eta langileekin koordinatzea, instalazioen aprobetxamendu handiena lortzeko.

b) Zuzendaritza Batzordearekin lankidetzan aritzea, lokalek eta instalazioek ahalik eta hobekien funtziona dezaten.

c) Zuzendaritza Batzordeari igortzea gertatzen diren hondaketen eta erregelamenduen arau-hausteen gaineko berriak eta parteak.

d) Erabiltzaileei kargu hartzea, gizalegezko portaera txarra izan edo instalazioei kaltea egiten bazaie, eta batzordeari proposatzea behar diren neurri zuzentzaileak.

e) Zuzendaritza Batzordeak agintzen dizkien gainerako guztiak.

B) Sailletako eta instalazioetako delegatuei dagokienez:

a) Zuzendaritza Batzordeari proposatzea Sailaren funtzionamendua hobetzeko behar diren neurriak.

b) Saileko abonatuak mantentzea, haietako bakoitzarentzat Zuzendaritza Batzordeak ezartzen dituen oinarritzko arauen barrenean.

c) Sail bakoitza antolatzea horretarako zuzendaritza batzordeak emandako arau oinarritzkoen barnean.

d) Bere Saileko abonatuei kargu hartzea, gizalegezko portaera txarra dutenean, eta Zuzendaritza Batzordeari proposatzea behar diren neurri zuzentzaileak hartzeko.

23. artikulua. Saileko kide izateko baldintza izanen da abonaturik egotea, salbu eta Kirol Sailean. Horretan jokalaria sartzen ahal dira, alegia, dagokion espezialitateko kirol probak gainditu eta Zuzendaritza Batzordeak halakotzat hartzen dituenak, Saileko delegatuek proposaturik eta datorren kirol modalitateko entrenatzaileak aldeztatik txostena eginda.

VII. KAPITULUA

KUDEATZAILEA ETA ZERBITZUKO LANGILEAK

24. artikulua. Zerbitzuaren administrazioa eta lanak burutzea izan litezke kudeatzaile baten ardura, Zuzendaritza Batzordeak lan araubide berezian kontratatua, abuztuaren 1eko 1382/1985 Errege Dekretuari, edo, kasua bada, hura ordeztan duten mota berekoei jarraikiz. Batzordearen aginpean beteko ditu esleitzen zaion egitekoari dagozkion eginkizunak.

25. artikulua. Kudeatzailearen eginkizun berariazkoak izan daitezke ondoko hauek:

a) Zerbitzua zuzendu eta ikuskatzea, esleitzen zaizkion ahalmenen barnean.

b) Instalazioetako jardueren funtzionamendu ona bermatzea. Horretarako, beharrezkotzat jotzen dituen neurriak proposatuko ditu.

- c) Bere jarduketa instalazioetako eta sailtako delegatuek burutzen dutenarekin koordinatzea.
- d) Bulegoetako burutza eta Zerbitzuari atxikitutako edo kontratatutako langileena bere gain hartzea.
- e) Erakundearen sinadura edukitzea adierazten dizkioten barne komunikazioetan.
- f) Zuzendaritza Batzordeko bilkuretara, osokoak zein batzordekoak izan, eta batzar orokorretara agertzea, hizpidea duela baina botorik gabe.
- g) Erakundearen gobernu organoen erabakiak betetzea eta betearaztea.
- h) Erakundearen jardueren gaineko urteroko txostenen prestaketan parte hartzea.
- i) Bazkideen kontrol, erregistro eta administrazioarako eta arlo ekonomikorako esleitzen zaizkion lanak burutzea.
- j) Zuzendaritza Batzordeak agintzen dizkion gainerako guztiak, dagozkion eginkizunen barnean.

26. artikulua. Erakundeak behar dituen langileak izanen ditu. Onetsitako lanpostuen zerrendetan eta plantilla organikoetan zehaztuko dira langile kopurua, kategoria eta eginkizunak. Betiere kontuan hartuz lan eskaintza publikoa eta bere langileak izendatzeko autonomiaren printzipioa, eta esleitzen zaizkion aurrekontu mugen barnean.

27. artikulua. Zerbitzuko plantillak ondoko hauek osatuko dituzte:

- a) Kasua bada, Udalak izendatzen dituen langileak, Zuzendaritza Batzordeak proposatuta.
- b) Erakundeak berak kontratatutako langileak.
- c) Kudeatzaileak eta lokaletako eta instalazioetako arduradunak.
- d) Erregelamendu honetan araututako prozedurari jarraikiz, eta kasu bakoitzeko berezitasun, baldintza eta lanpostuekin, kontratatua suertatzen den oro, egun diren legezko araubide eta modalitateei jarraikiz.

28. artikulua. Erakundearen zerbitzu eskusiborako destinatzen dituzten udal langileak, halakorik baldin bada eta langileak berak alde aurretik onartzen badu, haren plantilla organikoan sartuko dira, lehen zeuden tokian eszedentzia egoeran geldituz, denbora hori guztia bere alde kontatuko delarik, ondorio guztietarako, betiere egoerak horrela dirauen bitartean.

29. artikulua. Bere zerbitzurako behar dituen langileak zuzenean izendatuko ditu erakunde autonomoak, eta bere lanpostuak beteko ditu bere plantillen arabera eta Zuzendaritza Batzordeak, Batzar Orokorrak onetsitako irizpideei jarraikiz, ezartzen dituen oinarriak aplikatuz. Langile horien araubidea izanen da Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileria arautzen duen foru arautegian ezartzen dena.

Langile hauek, inolako salbuespenik egin gabe, lan kontratazio eta legeriari loturik geldituko dira.

VIII. KAPITULUA

UDALAREN ESKUMENAK

30. artikulua. Udalak eskumen eskusiboa izanen du honakootan:

- a) Erakundearen jarduerak garatzeko beharrezko edo komenigarri diren urteko aurrekontuaren guztirakoetan ezarri mugak berretsi edo ezestea.
- b) Ezarritako aurrekontuaren mugetatik goiti eramaten duten aldaketak berretsi edo ezestea.
- c) Udalaren jabetzakoak izan eta Zerbitzuari atxikirik dauden ondasun higiezin nahiz instalazioentzat bereziki arriskugarri izan daitezkeen edo edozein motatako kargaren ezarpena erakar dezaketen afera juridikoei dagozkien baimenak ematea.
- d) Talde edo klase sozial jakin batzuei tasak ordaintzetik salbuetsi edo murriztapenak egiteko erabakiak, haur eta adin txikiko gazteentzat direnetatik aparte, edo halako kasuetan Erakundearentzat bidezko diren konpentsazioei buruzkoak.
- e) Erabiltzaile batzueganako tratu berezia edo dispentsa egiteko erabakiak hartzea, edo haiek erreklamazio bidez eskatutako konpentsazioei buruzkoak, kasu bakoitzean bidezkoa datekeen medeapenarekin.
- f) Erakunde autonomoan kontrolatzea legea betetzen ote den, kontu-hartzailletza edo legez eska daitezkeen bestelakoak, helburu horietarako eskudunak diren funtzionarioen bitartez.
- g) Manten lanetarako edo inbertsio bereziak egiteko onespina ematea, ondasunei eta haien finantzazioari eta ordainketari dagokienez.

IX. KAPITULUA

ERAKUNDEAREN EBAZPEN ETA ERABAKIAK

1. ATALA

Lehendakaria

31. artikulua. Lehendakariak bere eskumeneko ebazpenak hartuko ditu, edozein mementu eta eratan, eta horrek ekarriko duen betebeharrak bakarrik ebazpen horiek jasotzeko gaitzeara izanen da, bere eta fede-emailearen sinadurekin, Lehendakariaren ebazpenen Liburuan. Liburu hori ere Zuzendaritza Batzordeko idazkariaren kargura egonen da.

2. ATALA

Zuzendaritza Batzordea

32. artikulua. Zuzendaritza Batzordearen erabakiak horretarako espresuki deitutako bilera edo bilkura irekietan hartuko dira.

Lehendakariak eginen du dei, bere ekimenez edo Zuzendaritza Batzordeko botoen %25 bederen osatzen duen kide multzo batek eskaturik, gutxienez ere 72 ordu lehenagotik. Halaber, zehaztu beharko da zein den eguneko gaien ordena, eta haiei buruzko dokumentazioa kideen eskura utziko da deialdia egiten den egunetik.

Ohiko bilkurak hilabetean behin eginen dira, eta ohiz kanpokoak gaien presak hala eskatzen duen aldioro.

Bilkura baliozkoa izan dadin, lehenbiziko deialdian, egon beharko dute bertan lehendakariak edo haren ordezkariak denak eta Batzordea osatzen dutenen erdiek gehi batek edo guztira diren botoen erdiak gehi bateko ordezkariak dutenek

33. artikulua. Lehendakariak eztabaidak zuzenduko ditu eta haiek amaitu ondotik, bozketa bidez, erabakiak hartuko dira.

Erabakiak, bertan dauden kideen botoen gehiengo soilaz hartuko dira, quorum berezia behar denetan izan ezik, eta ohiko bozketa sistemaz jardungo da, non eta Lehendakariak ez duen erabakitzen, salbuespeneko gorabeherengatik, isilpeko bozketa behar dela.

Berdinketarik gertatuz gero, bozketa berriz eginen da, eta hark segitzen badu, lehendakariaren edo haren ordezkariaren kalitatezko botoak erabakiko du.

Kontu horietarako, udal talde batek zenbat kide duen, horrenbeste boto izanen du horren ordezkariak.

Abonatuen ordezkariak izanen dituzte Udalaren aldetik dituzten boto berberak, alegia, hiru boto bakoitzak.

Kargua hutsik badago edo ordezkaria eri, zilegi izanen da abonatuaren ordezkariak botoa Batzordeko beste kide baten esku uztea (hura ere abonatuaren ordezkaria). Eskuordetze hori idatziz egin behar da, eta Zuzendaritza Batzordeko bilkura jakin baterako izanen da.

Ez zaie utziko parte hartzen eztabaidan eta ondoko bozketan legeen arabera parte ez hartzeko kasuren batean sartzen diren pertsonen.

34. artikulua. Zuzendaritza Batzordeak sarrera egunetik hasi eta gehienez hirurogei (60) egun naturaleko epearen barrenean ebatziko ditu bere aurrean tramitatzen diren eskaera eta eskabideak.

3. ATALA

Batzar Orokorra

35. artikulua. Erabiltzaileen Batzar Orokorraren erabakiak bilkura arrunt nahiz berezietan, horretarako espresuki egiten direnetan, hartuko dira.

Batzar arrunta urtean behin eginen da, gutxienez honako gai haiei buruz jarduteko: onestea aurreko ekitaldiko emaitzen kontuak, hurrengo ekitaldiko aurrekontuak, prezio publikoak, plantilla organikoa eta Zuzendaritza Batzordeak proposatzen dituen beste gaietako edozein.

Batzar Orokorraren bilkura arrunterako deialdian adieraziko da helbide sozialean erabiltzaileen eskura daudela bilerako gaiei dagozkien dokumentuak.

Dena dela, kasu guztietan, deialdian paratu beharko da eguneko gaien ordena, eta lehenbiziko bilera egin behar den ordu, leku eta eguna, eta, quorumik ez badago, bigarrenarenak; bigarrena egiteko ordubeteko tartea aski delarik.

Batzar bereziak eginen dira erregelamendu edo barne araei buruzko gaiak direnean, Estatutuen aldaketa edo Elkartearen deuseztapenez jardun behar denean, edo Zuzendaritza Batzordeak bidezkotzat jotzen duenean, betiere Zuzendaritza Batzordeko kideen botoen ehuneko hogeita bostek (%25) gutxienez eskatzen badute, edo erabiltzaile abonatu finkoen ehuneko hamarrek (%10) gutxienez, idatziz eta erabiltzailearen karnetaren eta NANaren fotokopiak ekarriz kautotutako sinaduren bitartez, eskatzen badute.

Batzar guztietarako deia Zuzendaritza Batzordeak eginen du, lehendakariak eta idazkariak sinatutako idazkiaren bidez, bilerarako zehazten den eguna baino hamabost (15) egun baliodun lehenago, bederen, eta instalazioetako iragarki oholean agertu eta probintziako egunkarietan iragarkia argitaratuz.

36. artikulua. Zuzendaritza Batzordeak jardungo du buru gisa Batzarretan eta eztabaidak zuzenduko ditu. Gaiari buruzko jarrera desberdinak azaldu ondotik eztabaida amaitutzat jo, bozketari hasiera eman eta bilkurari amaiera emanen dio.

Batzar Orokorra balio osoz eratzeko, lehenbiziko deialdian bertan egon beharko dute bere kideen erdiek gehi batek, haiek berek edo haien ordezkariak. Bigarren deialdian, balio osoz eraturik geldituko da, edozein delarik ere kideen kopurua, beraiek bertan egon edo haien ordezkarien bidez badaude.

Batzar Orokorraren erabakiak bertan daudenen gehiengo soilaz hartuko dira, deialdietako edozeinetan, bozketa sistema arrunta erabiliz, non eta, arrazoi bereziengatik, Zuzendaritza Batzordeak ez duen proposatzen, eta Batzarrak gehiengo berarekin onesten, isilpeko bozketa.

Berdinketarik gertatuz gero, bozketa berriz eginen da, eta hark segitzen badu, lehendakariaren edo haren ordezeko denaren kalitatezko botoak erabakiko du.

Erabiltzaile guztiek, baita disidenteek eta bertan ez daudenek ere, men egin beharko diete Batzar Orokorrak hartzen dituen erabakiei. Edozein motatako errekursoak paratuta ere, ez da errekurritutako egintzaren betearazpena geldiaraziko, izaera orokorreko xedapen batek kontrako agindua ezartzen duen kasuetan izan ezik.

4. ATALA

Erakundeko sailen bilerak

Haien funtzionamendua arautuko da ezarriko den Barne Araubideko Erregelamenduaren garapenaren bidez.

III. TITULUA

ARAU BIDE EKONOMIKO FINANTZARIOA

I. KAPITULUA

ZERBITZUA EMAN AHAL IZATEKO ATXIKITAKO ONDASUNAK

37. artikulua. Udalaren gain geldituko den jabariaren titularitatea deusetan galarazi gabe, erakunde autonomo honen bidez ematen den zerbitzu publikoaren helburuak betetzeko, hari atxikirik gelditzen dira ondasun higiezin guztiak (lokal eta instalazioak), altzariak eta eskubideak, Estatutu hauekin batera doan Zerbitzuko inbentario berezian bildu direnak hain zuzen ere.

Erakunde autonomoak ondasunei buruz dituen eskumenak, bere gain uzten den ondarearen ustiapena eta administrazioa izanen dira, bai eta ohiko trafiko juridikoa izanen diren ondasunak eskuratu nahiz besterentzea ere, betiere Udalbatzaren esku utziz jabariaren gaineko ahalmen guztien erabilera dagozkeen jarduketan baimen edo onespena.

Esleitu zaion helburuaren ikuspegitik, izan duen bilakaera dela eta, ondasun bat ez-beharrezko gertatzen bada, erakundetik desatxikia suerta daiteke.

Erakunde autonomoa iraungi ondotik, atxikitako ondarea Udalera itzuliko da, ustiapenaren ondorioz irabazi duen gehikuntza eta helburu espezifikoki atxiki gabeko kanpoko ekarpenekin, halakorik bada.

II. KAPITULUA

BALIABIDE EKONOMIKO-FINANTZARIOAK

38. artikulua. Xedeak betetzeko eta gastuak finantzatzeko, Lagunak Udal Zerbitzua erakunde autonomoak bere baliabide ekonomikoak erabiliko ditu, honako hauek alegia:

- a) Urtero dagokion dotazioa, instalazioak mantendu eta hobetzeko udal aurrekontu arruntetik datorrena.
- b) Udalak emandako diru-laguntzak, bai garatzen diren programetan oinarriturik, bai beren gorabehera ekonomiko-sozialengatik, Udalak hala erabakita, tratu berezia edo salbuespenekoa ematen zaien erabiltzaileen finantzazioaren ondorioz.
- c) Edozein erakunde edo instituzio publiko, estatal, foral edo lokaletatik datozen diru-laguntza, sorospen eta laguntzak.
- d) Edozein entitate eta pertsona, fisiko nahiz juridiko, publiko nahiz pribatu, klub, federazio, elkarte edo nortasun juridikorik gabeko entitatetik heldu diren sari edo ekarpenak, berdin dohaintza, legatu, usufruktu edo bestelako bidetatik etorria izan.

e) Erakundearen jarduera espezifikoek ekartzen dituzten diru-sarrerak.

f) Erakundeari atxikitako ondarearen aprobetxamendu material nahiz juridikotik eratorritako produktu eta etekinak.

g) Zerbitzuaren prezio publikoak. Horiek, arestian aipatutako proportzionaltasuna mantentzearen oinarria deusetan galarazi gabe, honako hauek hartuko dituzte kontuan: aurreko ekitaldietako defizitak, amortizazioak, instalazioen mantentze lanetako gastu arruntak, maileguen ordainketa eta diruzaintzako kredituak, gero aipatzen diren kontzeptuetatik heldu diren dirusarrerak eta Zerbitzuari bermatuak gertatzen zaizkion gainerako guztiak.

h) Abonatuak Elkartean sartzeko ordainduko dituzten kuotak, urtero berrikusiko direnak, oraingoa abiapuntutzat hartuz eta kontsumorako prezio indizearen arabera; kuotaren ehuneko berrogeita hamarra (% 50) alta gertatzen denean ordaindu behar da, eta gainerakoaren ordainketa gerora daiteke, hilabeteko kuoten bidez, gehienez ere bost urteko epean.

Prezio publikoen ezarpenean, Estatutu hauetako 7. artikulua azken lerroaldean aurreikusitakoa aplikatuko da, eta dagokien diru-bilketa errekarguak eta derrigorrezko biderako ezarritako tramiteak aplikatuz egin daiteke.

Agindu honen bereko g) atalean araututakoaren ondorioetarako, mantentze lanetako prezio publikoen kontzeptua izanen dute honako hauek:

Abonatuak aldiorokotasunez ordaintzen dituztenak.

Ez-abonatuak zerbitzua erabiltzeagatik ordaintzen dituzten prezioak.

Abonamenduak, zerbitzu espezifikoak erabiltzeagatik edo aldi baterakoak.

Autofinantzazio oinarriaren aplikazioak eskatuko du Zerbitzuaren ohiko mantentze lanak, ahal dela, kontzeptu guztietatik heldu diren fondoek bidez egitea.

Autofinantzazio oinarriaren aplikazioak eskatuko du instalazioen mantentze lana kontzeptu guztietatik heldu diren fondoek bidez egitea. Inbertsio obrak finantzatzeko dira baliabide arruntetatik dagokienaren bidez, gehi eskura daitezkeen baliabide bereziak.

III. KAPITULUA

KONTABILITATEKO ONDORIOA

39. artikulua. Erakunde autonomoak bere aurrekontuaren aplikazio eta garapenari ekingo dio, bere kontabilitate independentea eramanez, kontabilitate publikoaren erregimenaren menean eta Udalaren Kontu-hartzaitzak ikuskatuko duelarik; ekitaldiaren itxierako kontuen proiektua onetsiko da, eta horiek Udalaren kontu orokorren barrenean sartuko dira, azken horrek onetsi eta gero.

IV. TITULUA

PROZEDURA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

I. KAPITULUA

INPUGNAZIOAREN PROZEDURA ERKIDEA

40. artikulua. Zuzendaritza Batzordearen, Batzar Orokorraren edo Zerbitzuko bestelako edozein organoren erabakiak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren kontrolpean daudenak, ondoko bideak erabilita inpugnatzen ahal dira:

a) Legeria orokorreko jurisdikzioaren edo administrazioaren arloko errekurtsioak, organo eskudunei zuzendurik.

b) Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean eta hura garatzen duen arautegian ezarritakoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendurik. Aipatu auzitegi horren ebazpen espresu ustezkoek amaiera emanen diote foru bide administratiboari eta haien aurka jotzen ahalko da, administrazioarekiko jurisdikzioko organo eskudunei zuzendurik.

Edonola ere, une bakoitzean indarra duen arautegian ezarritakoari jarraikiko zaio.

Zuzendaritza Batzordearen, Batzar Orokorraren edo Zerbitzuko bestelako edozein organoren erabakiek, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren kontrolean daudenek, ukituak gertatzen direnei erabakiak inpugnatzeko bideen berri emanen diete.

Lagunak Udal Zerbitzuaren egintza eta erabakien aurka, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren kontrolpean ez badaude, bidezko ekintza edo errekurtsioak burutu edo paratzen ahalko dira, eskumena duten organo jurisdikzionaleri zuzendurik, legeria orokorrari jarraikiz.

II. KAPITULUA

ZEHAPEN PROZEDURA

41. artikulua. Abonatu eta erabiltzaileek zehatz-mehatz bete beharko dituzte Estatutu hauetako xedapenak eta barne araubideko erregelamentazioetan ezartzen direnak edo Zerbitzuaren funtzionamendu hobea goari buruz diktatzen diren guztiak.

Erantzukizun zibila izanen dute, baita ere, axolagabekeria, erru, maltzurkeria edo zabarkeriagatik instalazioei eragindako kalteak, alde batera utziz portaera horrengatik etor litezkeen administrazio zehapenak.

42. artikulua. Zuzendaritza Batzordeak osoko bilkuran zehatuko ditu ezarritako xedapenen aurkako arau-haustek, Erakundeko lehendakariak irekiko duen prozedura eta gero, Batzordeak berak erabakita edo lokal eta instalazioen delegatuek, edo edozein enplegatu edo erabiltzailek, hari egindako salaketaren ondorioz.

Espedientearen tramitazioan parte hartuko dute instruktoreak eta idazkariak; karguen plegua eta ebazpen proposamena formulatuko dira, interesdunari entzuteko tramitea izanen da, eta bidezko errekurtoa igorriko da hartzen den ebazpenaren aurrean.

Deusetan galarazi gabe Estatutu hauen garapenean dikta daitezkeen barne erregelamenduetan ezar daitezkeen arau-hauste eta zehapenen tipifikazioa eta helburu horrekin Zerbitzuko organo eskudunei hemen ematen zaien baimen espresua, honako araubide hau ezarri da:

Araau-hauste arinak izanen dira:

- a) Hiru hilabeteri dagokien ordainagiria ez pagatzea.
- b) Instalazioak gaizki erabiltzea, haiei kalte egiteko arriskurik gabe.
- c) Kargudun diren pertsoneri edo instalazioetako enplegatuei desobeditzea, eta begirune eta errespetu falta erakustea.
- d) Gainerako erabiltzaileei bigarren aldiz errespetu eta begirune falta erakustea.

Arau-hauste larritzat hartuko da:

- a) Sei hilabeteri dagozkien ordainagiriak ez pagatzea.
- b) Instalazioak gaizki erabiltzea, haiei kalte egiteko arriskuarekin.
- c) Kargudun diren pertsoneri edo instalazioetako enplegatuei behin eta berriz desobeditzea, eta begirune eta errespetu falta erakustea.
- d) Gainerako erabiltzaileei askotan errespetu eta begirune falta erakustea.

Honako hauek dira hutsegite oso larriak:

- a) Bederatzi hilabeteri dagozkien ordainagiriak ez pagatzea.
- b) Instalazioak gaizki erabiltzea, haiei kalte eginez.
- c) Kargudun diren pertsoneri edo instalazioetako enplegatuei irain, laido edo eraso fisiko edo immaterialak egitea.
- d) Instalazioetan erabiltzaileen artean gertatzen diren eraso, liskar eta borrokak.
- e) Erroldatzeari buruz egindako iruzurrak.

Jarduketa hauen aitzinean, maila zibil, administratibo edo penaleko gainerako jarduketak deusetan galarazi gabe, arau-hauste arinengatik jarriko den zehapena, kargu hartu eta erabiltzaile izaera aldi baterako gal dezaketela ohartaraztea izanen da; larriengatik, erabiltzaile izaera galduko da hilabete batez (1) gutxienez, sei hilabetez (6) gehienez, eta egozteko ohartarazpena; eta oso larriengatik besterik gabe erabiltzaile izaera galduko da eta instalazio guztietatik behin betiko egotziko.

V. TITULUA

ERABILTZAILEAK

I. KAPITULUA

ONARPENERAKO BALDINTZAK

43. artikulua. Lokal eta instalazioetako erabiltzaile izan daitezke ondotik zehaztuko diren baldintzak betetzen dituztenak, edozein direlarik ere adina, sexua, erlijioa, ideologia, egoera edo gorabehera pertsonal edo soziala, eta bazter uzteko arrazoi bakarrak izanen dira egoteko eta aisirako lekuen, lokalen eta instalazioen berezko muga fisikoak.

Berdin tratatu behar dira erabiltzaile guztiak, inolako bazterketarik egin gabe, sexua, etnia, erlijioa edo gizarte baldintzak direla eta.

44. artikulua. Bi erabiltzaile mota izaten ahalko dira: instalazioetako abonatuak eta gainerako erabiltzaileak.

Abonatuia izateko, ondokoa egin beharko da: zerbitzuak egiteko edo instalazioak erabiltzeko eskaria egin, onartua izan, kasuan kasuko txartela eduki, ordainketak eguneratuak izan eta ezarritako baldintzak bete.

Abonatuak izateaz gain, erabiltzaile kirolari eta zenbait jarduerari atxikitako erabiltzaile ere izan daitezke erabiltzaileak aldi baterako, betiere Zuzendaritza Batzordearen irizpideen arabera.

45. artikulua. Erabiltzaileen eskubideak honako hauek izanen dira:

A) Oro har, zuzen erabiltzea Zerbitzuaren lokal, instalazio eta haiei erantsitako guztiak, orokorrak nahiz beren sail eta modalitateetakoak.

B) Abonatuak:

1. Hautesle eta hautagai izatea, bai Zuzendaritza Batzordean dagozkien karguetarako, bai Estatutu hauetan ezarritako gainerakoetarako.

2. Posta bidez erabiltzea, hala nahi badute, karguetarako hauteskundeetako boto eskubidea.

3. Jarduera sozial orokorretan eta beren sailetako espezifikoean parte hartzea.

4. Aztertzea balantzeak, kontu orokorrak, aurrekontuak eta, oro har, Batzarretan aztergai izan ohi diren agiri guztiak.

5. Instalazioetan egiten diren mota guztietako ikuskizunetara dohainik joatea, non eta Batzordeak ez duen, aldeztatik, sarrera ordaindu behar dela erabaki.

6. Barañaindik kanpo bizi diren jendaki edo lagunak berarekin eramatea, dagokien sarrera-tarifa ordainduko dutela, erabiltzaile gehiegi izateagatik kopurua mugatzen den kasuetan izan ezik.

7. Hobaria jaso edo tarifa ordaintzetik salbuestea, abonatu izaera galdu gabe, justifikatutako arrazoiak medio, kanpoan luzaro egon behar den garaietan.

8. Arauteriaren ale bat jasotzea.

46. artikulua. Abonatuak beharkizun hauek izanen dituzte:

a) Araututako epearen barrenean ordaintzea Zerbitzuaren prestazioak ezartzen dituen ohiko edo ohiz kanpoko prezio publikoak, harik eta hil, egotzi edo borondatezko baja ematen duen arte.

b) Ematen diren nolanhiko maila eta lerruneko xedapenak bete eta betearaztea.

c) Behar diren portaera eta begirune arauak betetzea, bai norberari dagokionean, bai kargu, enplegatu eta Zerbitzuko gainerako erabiltzaileekin.

d) Erabiltzaileen datu pertsonalei edo kualitate eta motari dagokienean gertatzen den edozein aldaketaren berri ematea organo eskudunari.

47. artikulua. Aldian behingo erabiltzaileek edo aldi baterakoek edo jarduera jakin batzuetarakoek lokal eta instalazioak erabiltzeko izanen dituzten eskubideak, eurek eskuratzen duten sarrera motaren arabera izanen dira, onesten diren barne araubidearen erregelamenduek arautzen dituzten baldintzei jarraikiz, eta beharkizunei dagokienez, haien erabilera dela eta abonatuentzat ezarrita daudenak bete beharko dituzte.

48. artikulua. Zuzendaritza Batzordeak mugatzen ahalko du abonatu eta erabiltzaile kopurua, instalazioen edukieraren arabera.

Halaber, obrak edo bestelako arrazoi larriak tarteko direnean, Zuzendaritza Batzordeak bertan behera utz dezake lokal, instalazio eta zerbitzuen erabilera, hein batean edo osorik.

Halako kasuetan ematen den ebazpenak argudiatuko du zein den mozketaren arrazoia eta zehaztuko, ahal bada, zenbat denbora iraunen duen, eta iragarkien bidez emanen du aditzera Erakundearen iragarki oholean eta probintziako egunkarietan.

Zerbitzua arrazoi horiengatik bertan behera uzten denean, erabiltzaileek edo abonatuak ez dute kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izanen.

VI. TITULUA

ERAKUNDEAREN DEUSEZTAPENA

49. artikulua. Erakunde autonomoa iraungiko da, bai deuseztapenaren ondorioz, bai Zerbitzuaren kudeaketa edo prestazioa eraldatzeagatik, bai epai judizial irmoa dela medio.

Deuseztapen erabakia hartuko da, bai Batzar Orokorrak eskatu, bere kideen bi herenek (2/3) adostasuna agertuz, eta gero Udalak berretsita, bai Udalaren ebazpen zuzenaren bitartez, ezarrita dagoen erregelamenduzko quorumaren bidez hartutako ebazpenaz hain zuzen ere.

Deuseztapena gertatzen denean, ondarea besterik gabe lehen zeukan destinoaren xedearekiko inolako atxikimendurik ez duela geldituko da, eta Udalaren eskura itzuliko, deusetan ukatzeke dagozkioken kreditu eskubideak.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Udala beste korporazio edo udalerrri batek bereganatzen bada edo hartan sartzen bada, Barañaingo Udalak, bere deuseztapena baino lehen, bermatuko du entitate berriaren aurrean Lagunak erakundearen instalazioen erabilera eta haren kudeaketako partaidetza Zerbitzuko abonatuentzat, Estatutu hauetan ageri den bezala.

AZKEN XEDAPENA

Estatutu hauek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen direnean hartuko dute indarra.

ATXIKITAKO ONDASUN HIGIEZINEN ERANSKINA

Eranskinean ondoko ondasun higiezinak biltzen dira, Barañaingo Udalaren jabetzakoak, Lagunak Udal Zerbitzuari atxikiak eta Barañaingo udalerriko 98. lurzatiaren barnean kokatuak (guztira 86.746 m²-ko azalera dute, eskrituraren arabera, eta 68.793,31 m², berriz, katastroaren arabera).

Elkartearen eraikina, 1978an eraikia, ondokoa duena:

–Sotoko solairuan (806 m²): bi aldagela langileentzat, kirol materialaren biltegia, lantegia, igerilekuen makinaren aretoa, ikuztegiaren aretoa eta galdaren aretoa. Zenbait konponketa partzial ekipamenduan.

–Beheko solairuan (1.393 m²): bulegoak, komunak, taberna-jatetxea, erabilera anitzeko bi gela, aldagela orokorrak erabiltzaileentzat. Osorik eraberritua 2003an.

–Lehengo solairuan (447 m²): bulegoak, komunak, erabilera anitzeko gelak.

Igerileku estali bat, elkartearen eraikinari erantsia beheko solairuan (25 x 12,5 m² = 312,50 m²) eta erabilera anitzeko gela (500 m²) lehen solairuan. 1992an eraikia.

Hidroterapia eremua (2 spa, 2 sauna, 2 bainu turkiar, eta dutxa biotermikoak), ekipoak dituen aretoa (gimnasioa), 200 m²-koa, gizonentzako eta emakumeentzako aldagelak (170 m², 13 dutxa, 9 komun eta 150 armairu bakoitzean), aldagela osagarriak, botikina, biltegia eta fisioterapia aretoa. Elkartearen eraikina eta igerilekua 2004an eraberritu eta handitzean eraikiak.

Kanpoko 4 igerileku: olinpikoa (1.100 m²), ertaina (250 m²), triangeluarra (80 m²) eta palastakoa (32 m²), haurrentzako komunen eraikinarekin eta makinaren aretoa (20 m²). 1979an eraikia eta ondoren eraberritua.

Haur-parke 1 (25 m²).

Patinodromo estali 1, 200 m-ko sokakoa, erdialdean kirol pista duena (942 m²). 1979an eraikia eta 1992an estalia.

11 futboleko zelai 1, belar artifizialekoa (6.741 m²), harmaila estali gabeak dituena. 1979an eraikia. Ondoren zoladura eraberritu zen.

8 futboleko zelai 1, belar artifizialekoa (2.815 m²), harmaila estali gabeak dituena. 1979an eraikia. Ondoren zoladura eraberritu zen.

8 kirol aldagela, epaileentzako 3 aldagela, kirol biltegia beheko solairuan. 1992an eraikia.

2 tenis pista, estali gabeak (1.240 m²). 1979an eraikiak.

Padel pista 1, estali gabea (200 m²). 2012an eraikia.

Pilotaleku estali 1, 677 m²-ko pistakoa, aldagelekin eta harmailekin. 1978an eraikia.

Kirol anitzeko eraikin 1, 1.521 m²-ko azalera eraikia duena, honako honekin: kirol anitzeko pista (1.902 m²), harmailak, bi kirol aldagela, epaileentzako aldagelak, biltegia eta komunak. 2009an eraiki zen.

Erretegien eremua: suteak, harraskak, komunak, biltegia eta jateko eremua (380 m²). Estalki metalikoa du. 1979an eraiki zen eta ondoren eraberritu.

Berdegunea: soropila eta zuhaitzak, eta birlandatutako pinuen eremu natural bat (32.000 m²).